

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25772 - Jarduera Fisiko Inklusiboa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetan desgaitasun fisiko edo diskriminazio soziala sufritzen duten pertsonak ditugu lan esparru. Ikasle bakoitzak eduki eta erabili behar dituen komunikazio trebeziak eta jakindurian oinarritzen da. Horrela, ikasleak diskriminaturik dauden edota desgaitasun bat daukaten pertsonen kalitatezko zerbitzu bat emateko gaitasuna garatzea espero da esparru inklusiboetan, jolas, kirol, aisialdi edo osasun testuinguruetan.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIKO BERARIAZKO KONPETENTZIAK

C.1 - Ikasleari behar adinako formakuntza eskaini, Jarduera Fisiko Inklusiboak eskola normalizatura, eskola ez-formalera eta beste hainbat egoeratarako egokitzeko; bai hezkuntza, bai aisialdi, bai osasuna bai eta kirol lehiaketa arloan ere.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, jarduera fisiko inklusiboa kasu zehatz bakoitzerako bideraturiko proposamenak garatuko ditu.

Ebaluatu eta kalifikatuko da.

C.2.- Premia Bereziak dituzten pertsonen hezkuntza eta gizartean parte hartzeko nolako zailtasunak eta aukerak dituzten ezagutzea; eta gainera, kontzientzia hartu dezala, hori lortzeko, gizakiak jarrera egokia izatea ezinbesteko dela.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, behar bereziak dauzkaten pertsonen arazo eta aukera espezifikoak identifikatzeko gaitasunak garatuko ditu eta jarrera on baten garrantzia ulertuko du.

Ebaluatu eta kalifikatuko da.

C.3.- Jarduera Fisikoa eta Kirola urritasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala duten pertsonen (ume, gazte eta helduei) egokitu eta aniztasun egoera ezberdinei (bai eta sozialak edo kulturak direnei ere) ahalik eta erantzun hobereana eskaintzea, eguneroko bizitza arruntean integrazio soziala lortu dezaten.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, edonolako beharrak dauzkaten pertsonentzako jarduera fisiko inklusiboko proposamenak moldatzeko estrategiak ikasiko ditu.

Ebaluatu eta kalifikatuko da.

C.4.- Jarduera fisikoa eta Kirol Egokituari buruzko erakunde eta elkarten informazioa jaso dezatela.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, jarduera fisiko inklusiboarekin eta kirol egokituarekin zerikusia duten federazioen eta erakundeen egitura eta antolaketa ikasiko du.

Ebaluatu eta kalifikatuko da.

C.5. - giza-motrizitatean eragina duten mota ezberdinetako ikerketak eta zailtasunak ezagutu eta aztertu, hauei erantzun bat emateko, hauek ulertzeko, eta gizakiaren nortasunari buruzko ikuspegi orokor bat izateko.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, giza gorputzak dauzkan mugak identifikatzeko eta muga hauei erantzuna emateko gaitasuna garatuko du.

Ebaluatu eta kalifikatuko da.

C.7. – Norbere arloan eta lanean etengabe hobetzeko sena eta joera bereganatu.

Ikastearen emaitzak: Ikasleak, jarrera on baten garrantzia ikasiko du behar bereziak dituzten pertsonen lan egiteko garaian.

Ebaluatuko da.

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

G017 jarduera fisiko eta kirolaren literatura zientifikoa ulertzea

Ikasketa emaitzak: ikerketa zientifikoan oinarrituta ikasleak kirol eta jarduera fisiko programa ezberdinak diseinatzen jakingo du aniztasun funtzionala duten pertsonentzako.

Ebaluatu eta kalifikatuko da.

G019 Lidergorako, pertsonen arteko harremanetarako eta taldean lan egiteko trebetasunak garatzea.

Ikasketa emaitzak: ikaslea taldean lan egiteko gai izango da, kide guztien arteko elkarlana bermatuz errespetuan oinarrituta.

Ebaluatuko da.

G020 Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.

Ikasketa emaitzak: ikasleak bere kabuz ikasteko gaitasuna lortu behar du.

Ebaluatuko da.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

EDUKI TEORIKO PRAKTIKOAK

I. GAI MULTZOA: GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN INGURUKO OROKORTASUNAK

1.1. GAIA: Jarduera fisiko inklusiboa.

- Kontzeptu orokorrak.
- Ikuspuntu historikoa.
- Terminologiaren interpretazio ezberdinak.
- Interbentzio esparruak.

1.2. GAIA: Jarduera fisiko inklusiboa nori zuzendua dago: Poblazioaren deskribapena.

- urritasun fisikoa: definizioa, mota, etiologia, intzidentzia, sailkapena eta ezaugarri orokorrak.
- urritasun sentsoriala: definizioa, mota, etiologia, intzidentzia, sailkapena eta ezaugarri orokorrak.
- urritasun psikikoa: definizioa, mota, etiologia, intzidentzia, sailkapena eta ezaugarri orokorrak.
- urritasun organikoa: definizioa, mota, etiologia, intzidentzia, sailkapena eta ezaugarri orokorrak.
- urritasun soziala: definizioa, mota, etiologia, intzidentzia, sailkapena eta ezaugarri orokorrak.

1.3. GAIA: Urritasuna duten pertsonen mugikortasuna eta irisgarritasuna

II. GAI MULTZOA: IKUSPEGI INKLUSIBOA IRAKASKUNTZA FORMALEAN: GORPUTZ HEZKUNTZA ARLOA.

2.1. GAIA: Hezkuntza Inklusio/segregazio kontzeptuen orokortasunak.

- Bigarren hezkuntzako lege eta araudia hezkuntza inklusiorako.
- Inklusio araudiaren aplikazioa gorputz hezkuntzan
- Hezkuntza zentru motak inklusioaren ikuspuntutik

2.2. GAIA: Inklusioa gorputz hezkuntzan

- Eskola inklusiboa: eskolako eta eskolaz kanpoko ekintzen markoa.
- Hezkuntza Premia Bereziak gorputz hezkuntzan
- Inklusiorako aukerak gorputz hezkuntzan: ebidentzia zientifikoa
- Inklusiorako zailtasunak gorputz hezkuntzan: ebidentzia zientifikoa

2.3. GAIA: Inklusioa eskola kirolean

- Eskola kirolaren antolaketa urritasuna duten pertsonentzat.
- Eskola kirola hobetzeko proposamenak urritasuna duten pertsonentzat.

III. GAI MULTZOA. KIROL EGOKITUA

3.1. GAIA: Kirol egokituaren antolaketa

- Batzorde Paralinpikoak.
- Kirol federazioen antolaketa nazioarte mailan, maila nazionalean eta erkidego mailan.
- Klubak
- Kirol entitateak eta beste entitateak.

3.2. GAIA: Kirol sailkapenaren kontzeptua

- Sailkapenaren kontzeptua
- Sailkapen kriterio eta motak urritasunaren arabera.
- Ebidentzia zientifikoan oinarritutako sailkapena

3.3. GAIA: Kirol egokitu ezberdinen analisia

- Kirol espezifikoak
- Kirol egokituak

3.4. GAIA: Kirol egokituaren justifikazioa inklusiorako tresna gisa.

IV. GAI MULTZOA. JARDUERA FISIKO INKLUSIBOA AISIALDI ESPARRUAN

4.1. GAIA: Jarduera fisikoaren antolaketa urritasuna duten pertsonentzat

- Entitate eta erakundeen izaera eta ezaugarriak
- Jarduera fisiko motak aisialdi egoeretan.
- Jarduera fisiko inklusiboa ziurtatzeko egokitzapen eta proposamenak

METODOLOGIA

A) Eduki teorikoak: saio magistralak ikus-entzunezko materialean oinarrituz (aurkezpenak Powerpoint-arekin).

Ondorengo ere erabiliko da:

- Eztabaidaturiko aurkezpenak taldearekin. Ikasleen partehartzea bultzatuko da galderekin.
- Derrigorrezko lanen aurkezpenak (irakaslearen ikuskapenarekin)
- Klasean ikusitako testuen iruzkinak
- Talde eztabaidak
- Klasean ikusitako testuetatik edo bideoetatik ateratako kasu zehatzen azterlana
- Bideoen aurkezpenak

B) Eduki praktikoak: irakasleak zuzenduko ditu saio praktikoak. Testuinguru ezberdinetan garatu daitezke (gelan edota kiroldegian). Ikasleek, zehaztuko diren egunetan, praktika lanak aurkeztu beharko dituzte (klasean emandako jarraibideak jarraituz).

eGela erabiliko da irakaskuntzarako euskarri bezala, batez ere ikasleari informazioaren bilaketa errazteko, baina baita ikasleen arteko elkarlana bultzatzeko ere (beti irakaslearen ikuskapenarekin).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	10	20						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	15	30						

Legenda: M: Magistrala
GL: Laborategiko p.
TA: Tailerra
S: Mintegia
GO: Ordenagailuko p.
TI: Tailer Ind.
GA: Gelako p.
GCL: P. klinikoak
GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 5
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 45

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleak 2 era hauen arteko bat aukeratu beharko du:

a) Ebaluaketa jarraia: ikasleak saio teoriko-praktikoetan adeitsu parte hartu beharko du, eta azterketa idatzia zein eskatutako lan guztiak entregatu beharko ditu zehaztutako epeen barruan. Ikasleak praktikak edo lanak E-Gela plataformaren bidez entregatu beharko ditu. Plataforman zehazki aurkeztuko dira zeregin ezberdinen entregatze datak. Epea igaro ondoren praktika edo zereginen bat entregatuz gero, 5etik kalifikatuko da. Zeregin edo praktika berandu entregatuz gero 5 izango da kalifikazio maximoa. Irakasgaia gainditzeko (10etik 5) atal bakoitzean (talde lanean, zeregin/praktiketan eta azterketan) gutxienez 10 puntutik 4ko nota lortu beharko du.

Ikasle batek entregatu beharreko lanen bat gainditzen ez baldin badu ez ohiko deialdia egin beharko du gainditu ez duen gaiarekin bakarrik. Nota partzialak kurtso akademiko berean bakarrik gordeko dira.

EBALUAZIO JARRAIARI UKO EGITEA: Ikasleak ebaluazio jarraiari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikastur-tea hasten denetik kontaktzen hasita.

b) Azken ebaluazioa: Azterketa idatzia zein eskatutako lan guztiak entregatu beharko ditu zehaztutako epeen barruan. Ikasleak praktikak edo lanak E-Gela plataformaren bidez entregatu beharko ditu azterketa deialdi ofiziala azken entregatze data izanik. Irakasgaia gainditzeko atal bakoitzean (talde lanean, zeregin/praktiketan eta azterketan) gutxienez 10 puntutik 4ko nota lortu beharko du.

Ikasle batek entregatu beharreko lanen bat gainditzen ez baldin badu ez ohiko deialdia egin beharko du gainditu ez duen gaiarekin bakarrik. Nota partzialak kurtso akademiko berean bakarrik gordeko dira.

Ebaluazioa ez presentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2021-2022 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan. Ebaluazio proba hauek ahozkoak izan litezke.

AZKEN EBALUAZIOKO DEIALDIARI UKO EGITEA.

1.– Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

2.– Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3.– Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

USTEZKO IRUZUR, KOPIA EDO PLAGIOAREN AURREAN

Ohiko deialdian zein ez-ohiko deialdian, kasu guztietan, ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio. Era berean, irakasgaiaren ardura duen irakasleak ikasleari jakinaraziko dio suspentso kalifikazioa (0.0) izango dela.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

a) Ebaluaketa jarraia: Ikasleak gainditu ez dituen praktikak edo lanak E-Gela plataformaren bidez entregatu beharko ditu azterketa data baino lehen. Irakasgaia gainditzeko (10etik 5) atal bakoitzean (talde lanean, zeregin/praktiketan eta azterketan) gutxienez 10 puntutik 4ko nota lortu beharko du.

Ikasle batek entregatu beharreko lanen bat gainditzen ez baldin badu edo epea igaro ondoren praktika edo lana entregatzen badu, suspentso kalifikazioa izango da. Ezohiko deialdiaren ondoren nota partzialak ez dira hurrengo kurtso

akademikorako gordeko.

b) Azken ebaluazioa: Azterketa idatzia zein eskatutako lan guztiak entregatu behako ditu. Ikasleak praktikak edo lanak E-Gela plataformaren bidez entregatu beharko ditu azterketaren ez ohiko deialdia azken entregatze data izanda. Irakasgaia gainditzeko (10etik 5) atal bakoitzean (talde lanean, zeregin/praktiketan eta azterketan) gutxienez 10 puntutik 4ko nota lortu beharko du.

Ikasle batek entregatu beharreko lanen bat gainditzen ez baldin badu edo epea igaro ondoren praktika edo lana entregatzen badu, suspentso kalifikazioa izango da. Ezohiko deialdiaren ondoren nota partzialak ez dira hurrengo kurtso akademikorako gordeko.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2021-2022 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan. Ebaluazio proba hauek ahozkoak izan litezke.

EZ OHIKO DEIALDIARI UKO EGITEA.

Ez ohiko deialdiari uko egiterakoan ikaslearen kalifikazioa ez aurkeztua izango da.

Azterketa egun ofizialean ez aurkezteak ez ohiko deialdiarian uko egite automatikoa ekarriko du.

USTEZKO IRUZUR, KOPIA EDO PLAGIOAREN AURREAN

Ohiko deialdian zein ez-ohiko deialdian, kasu guztietan, ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio. Era berean, irakasgaiaren ardura duen irakasleak ikasleari jakinaraziko dio suspentso kalifikazioa (0.0) izango dela.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

E-gela-n aurkeztuko den material dozentea.
Gelan aurkeztutako artikulu zientifikoak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Hernández Vazquez, F.J. (2012) Inclusión en Educación Física. Las claves del éxito para para la inclusión del alumnado con capacidades diferentes. INDE. Barcelona.

Calvo Rodriguez & Martínez Alcolea, Ángel. R. A. Técnicas, procedimientos e instrumentos para realizar las adaptaciones curriculares. Madrid, 1997. Ed. Escuela Española.

Hernández & López. Educación Física, deporte y atención a la diversidad. Málaga, 1997. Ed. Instituto Andaluz del Deporte.

Hernández Vazquez, F.J. (2012) Inclusión en Educación Física. Las claves del éxito para para la inclusión del alumnado con capacidades diferentes. INDE. Barcelona.

Gomendio, M. Educación Física para la Integración de niños con necesidades educativas especiales. Madrid, 2000. Ed. Gymnos

Wing, C. "ACSM/NCHPAD resources for the certified inclusive fitness trainer the definitive resource for physical activity and ability". Indianapolis American College of sports medicine; National Center on health physical activity and disability cop. 2009.

Alberti, M. & Romero, L. "Alumnado con discapacidad visual". Barcelona Graó 2010.

Bassedas, E. "Alumnado con discapacidad intelectual y retraso del desarrollo". Barcelona Graó 2010.

Canales, L., & Rebecca K. "Physical activities for young people with severe disabilities". Champaign, IL Human Kinetics 2011.

Goosey-Tolfrey, V. "Wheelchair sport A complete guide for athletes, coaches, and teachers". Champaign, Ill. Human

Kinetics 2010.

Horvat, M. A., Block, M.E., & Kelly, L. "Developmental and adapted physical activity assessment". Champaign, IL Human Kinetics 2007.

Kasser, S. L. L., & Rebecca K. "Inclusive physical activity promoting health for a lifetime". Champaign, IL Human Kinetics c2013.

Kelly, L. "Adapted physical education national standards". Champaign, IL Human Kinetics 2006.

Reina Vaíllo, R. "La actividad física y deporte adaptado ante el Espacio Europeo de Enseñanza Superior". Sevilla Wanceulen 2010.

Ríos Hernández, M. "Actividad física adaptada el juego y los alumnos con discapacidad. La integración en los juegos. Juegos específicos. Juegos motrices sensibilizadores". Barcelona Paidotribo cop. 2006.

Ríos Hernández, M. "565 juegos y tareas de iniciación deportiva adaptada a las personas con discapacidad". Barcelona Paidotribo 2013.

Ríos Hernández, M. & Ruiz Sánchez, P. "La inclusión en la actividad física y deportiva [la práctica de la educación física y deportiva en entornos inclusivos]". Badalona Paidotribo 2014.

Rosell Bultó, C., Soro-Camats, E. & Basil, Carme. "Alumnado con discapacidad motriz". Barcelona Graó 2010.

Sanz Rivas, D. & Reina Vaíllo, R. "Actividades físicas y deportes adaptados para personas con discapacidad". Barcelona Paidotribo 2012.

Winnick, J. P. "Adapted physical education and sport". Champaign, Ill. Human Kinetics c2010.

Yves C. Vanlandewijck, & Walter R. Thompson Handbook of Sports Medicine and Science: The Paralympic Athlete. John Wiley & Sons, 2011.

Yves C. Vanlandewijck, & Walter R. Thompson. Handbook of Sports Medicine and Science: Training and Coaching the Paralympic Athlete. John Wiley & Sons, 2016.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Gomendio. M. (1994). Gorputz Hezkuntza Gidaliburua. Otsoko. Editorial Elkar. GIE

Kasser, S.L. (1995). Inclusive Games. Movement fun for everyone. United Kingdom. Human Kinetics. Autores

Mendoza, N. (2009). Propuestas prácticas de educación física inclusiva para la etapa de Secundaria. INDE. Barcelona.

Pérez, D., López, V. & Iglesias, P. (2004). La atención a la diversidad en educación física. Wanceulen. Sevilla.

Varios. (1994). Bigarren Zikloko Gidaliburua. Otsoko. Editorial Elkar. GIE.

Hernández Vázquez, F. J. "El deporte para las personas con discapacidad los retos de la adaptación y la inclusión deportiva". [Barcelona] Edittec 2015.

Ainscow, M. "Desarrollo de escuelas inclusivas Ideas, propuestas y experiencias para mejorar las instituciones escolares". Madrid Narcea D.L. 2004.

Cardona Moltó, M. C. (2006). "Diversidad y educación inclusiva enfoques metodológicos y estrategias para una enseñanza colaborativa". Madrid [etc.] Pearson-Prentice Hall cop.

Cumellas Riera, M. & Estrany Font, C. (2006). "Discapacidades motoras y sensoriales en Primaria La inclusión del alumnado en Educación Física : 181 juegos adaptados, unidad didáctica: deporte adaptado". Barcelona INDE.

Escribá, A. (2004). "Los juegos sensoriales y psicomotores en la E.F. propuesta de unidades didácticas y fichas de clase". Madrid Gymnos D.L.

Aldizkariak

Adapted Physical Activity Quarterly

Journal of Sports Rehabilitation

Spinal Cord

IJSPP

JSCR

Revista Española de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte

RYCIDE

Retos

Interneteko helbide interesgarriak

Pubmed

Asociación Española de Actividad Física y Deporte Adaptado

Centro de Estudios del Deporte Inclusivo (CEDI)

Comité Paralímpico Internacional

El Club de la Inclusión

Comité Paralímpico Español

Academia del Comité Paralímpico Internacional (Formación on-line)

Federacion Vasca de deporte adaptado

www.cermi.es

www.ince.mec.es

www.ncpad.org/disability

www.cpe.es

www.fedpc.org

www.feddf.es

www.feddi.org

www.fedc.es

OHARRAK

E-gela jarraitzea derrigorrezkoa izango da.